

Sagardoetxearen etorkizunaren inguruko hausnarketaren ondoren, herri-galdeketa

Kronika - Erredakzioa 2021-07-08 00:00



Atzo azaldu zituzten Sagardoetxearen etorkizunari buruzko nondik norakoak.

Sagardoetxeak etorkizunari begira zer norabide hartu, hausnartu, eta proposamen bat landu dute hausnarketa taldean parte hartu duten 25 lagunek, eta atzo aurkeztu zituzten nondik norakoak, Sagardoetxean bertan.

Hausnarketa taldea osatu dute Astigarragako hainbat eragile eta elkarteko ordezkariak, Udaleko hainbat ordezkariak eta baita herritar batzuk ere. Hauen egitekoa Sagardoetxearen etorkizuna irudikatzea izan da, herri-galdeketerako oinarriak lantzearekin batera.

Lehen hausnarketa saioan, Sagardun Partzuergoko ordezkariak Sagardoetxearen 15 urteetako ibilbidea azaldu zuten, gaur egungo beharrak ere mahai gaineratuz. Azalpen hauekin, hausnarketa taldeak hainbat «marra gorri» ezarri ditu, hala nola, Sagardoetxeak herriarekin eta herritarrekin harreman zuzena izaten jarraitu behar du.

Bigarren saioan, etorkizuneko eszenatoki desberdinak landu ziren, eta bi ondorio atera zituzten: batetik, Sagardoetxeak gaur egungo egoera gainditu eta dituen beharrei erantzuteko proposamen berri eta zabalagoa behar duela izan. Eta bestetik Sagardoetxea ez dela «museo soil bat, bestelako erabilera eta dinamikak lantzen eta tartekatzen ditu hain justu».

Hausnarketa taldearen azken saioan, herri-galdeketari eutsi zitzaion. Astigarrarei zein galdera luzatu adostu zen bertan, besteak beste. Saioen tartean kontraste saioa ere egon da, eta «parte hartze baxuko saioak» izan badira ere, landutako proposamenak kontrastatzeko balio izan duela ziurtatu dute.

Herri-galdeketa


Burutuko den herri-galdeketa hau, hausnarketa prozesuan zehar adostutako galderez osatuta egongo da. Eta hainbat urrats bete beharko dira horretarako, hala nola, uztaileko Udal Osoko Bilkuran onartzea, jarraipena emango dion berme taldea osatzea, besteak beste. Amaitzeko, herritarrek Sagardoetxearen inguruko euren iritzia, «hiruzpalau hilabete barru» eman ahal izatea espero duela azaldu du Astigarragako Udalak.

Gizartea Astigarraga


Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

Erantzun ▼



0:30 / 0:30



Ikusienak



[«Oso pozik nago lortutakoarekin, hala ere, taldeak meritu haundia dauka»](#)

Kronika - Erredakzioa
abu 17, 00:00
[Hernani](#)



[Ainara Ortega kontzertua eskainiko du larunbatean, Atsegindegin](#)

Kronika - Erredakzioa
abu 16, 00:00
[Hernani](#)



[Txolarre albinoa agertu da Aranon; «gauza oso bitxia da gertatutakoa, aranoarrak txundituta gaude»](#)

Kronika - Erredakzioa
abu 15 [Arano](#)



[Momentuko egoerak ahalbidetzen badu, Bakailao Astea egingo da](#)

Kronika - Erredakzioa
abu 17, 00:00
[Hernani](#)



[Emakume komikilari talde baten eskutik, kalean da 'Tupust!' liburua](#)

Kronika - Erredakzioa
abu 15 [Hernani](#)



[Axeri dantzaren dokumentala](#)

Kronika - Erredakzioa
abu 17, 00:00
[Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [AIURRI](#) [ALEA](#) [AMEZTI](#) [ANBOTO](#) [ANTXETA](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [BARREN](#) [BEGITU](#)
[DEUSTUALDEA PREST](#) [ERLO TELEBISTA](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GEURIA](#) [GOIENA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [MAXIXATZEN](#) [NOAUA](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#) [PLAENTXIA](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZZARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)